


KOMUNITATEAN HAZTEN: HAUR GUNEEN SAREA HERRI BIZIENTZAT



Bidaurretako esperientzia, herri inklusiboagoa, jasangarriagoa eta biziagoa eraikitzeko

“Komunitatean Hazten” proiektua ideia batetik abiatzen da: haurrak herriaren plangintzaren erdigunean jartzea, komunitate osoaren bizi-kalitatea hobetzeko. Parte-hartze prozesu batean haurrek eta gazteek adierazitako beharretatik abiatuta, Bidaurretako Udalak jolas- eta bizikidetza-espazioen sare bat sortu du, helburu sozialak, ingurumenekoak eta kulturalak, irisgarritasunari eta segurtasunari lotutakoak eta herritarren parte-hartzeari dagozkionak uztartuz.

Proiektua hirigune osoan zehar egindako hainbat jarduketaz osatu da, jolas-espazioen sarea eta bizikidetza hobetzeko, kultura- eta natura-ondarea balioan jartzeko eta, aldi berean, material jasangarriak erabiltzea, birziklapena eta berrerabilpena sustatzeko.

HELBURU ANITZEKO PROIEKTUA

Gizarte-kohesioa eta belaunaldien arteko bizikidetza.

Haur-parke berria kokapen isolatu batetik herriaren erdigunera lekualdatu da, Ludoteka, Gaztetzokoa, elkartea, erabilera anitzeko gelak eta babesleku klimatikoaren ondoan. Horrela, haurren jolaserako espazioak beste erabilera eta belaunaldi batzuekin partekatzen dira, topaguneak sortuz eta komunitate-harremanak sendotuz.

Inklusioa eta irisgarritasun unibertsala.

Ludotekan eta bertako komunean oztopoak ezabatu dira, mugikortasun urriko pertsonen errazago erabili ahal izan ditzaten. Proiektuak jolasteko, elkartzeko eta parte hartzeko eskubidea aukera-berdintasunean baliatu beharreko eskubidetzat hartzen du.

Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra.

Jarduketan lehentasuna eman zaio lehendik zeuden baliabideak aprobetxatzeari: udaleko beste obra batetik ateratako lurrak berrerabili dira parke berriaren zabalgunea sortzeko, eta bankuak eta beste

material batzuk berreskuratu dira. Gainera, 50 m²-ko kortxo naturaleko zoladura moteltzailea instalatu da; material berriztagarria eta birziklagarria da. Era berean, haur-parkeko jolas-moduluak plastiko birziklatuz eginak dira.

Ingurumen-hezkuntza eta biodibertsitatea.

Jolas-eremuak hezkuntza-espazio ere bihurtu dira, intsektuen etxe bat, hegazti paseriformeen erreplika identifikagarriak eta Etxauriko haitzetako hegaztiei buruzko panelak instalatuz. Helburua tokiko biodibertsitatea haurrei hurbiltzea eta txikitatik hura ezagutzea, baloratzea eta kontserbatzea sustatzea da.

Ondarea, nortasuna eta kultura-transmisioa.

Jolasa belaunaldi berriei ondarea hurbiltzeko tresna gisa erabili da. Txalapartak, larrain eta etxolei buruzko panelek eta Bidaurretako Jauregia Parkea berriari izena ematen dion antzinako jauregiaren memoria berreskuratzeak lurraldearen ezagutza eta harekiko pertenezia-sentimendua indartzen laguntzen dute.

Haurren segurtasuna eta autonomia.

Mugikortasunari eta bide-segurtasunari buruzko azterketa egin da, eta proposatutako neurri zuzentzaileak gauzatu dira, haurrek herriko espazioen artean segurtasun eta autonomia handiagoz mugitu ahal izateko.

Parte-hartzea, berdintasuna eta komunitatea.

Auzolana proiektuaren zutabeetako bat izan da. Hasieran aurreikusitako 2 jardunaldien ordez, 10 auzolan-jardunaldi egin dira, eta belaunaldi desberdinek parte hartu dute jarduketak gauzatzen. Era berean, tradizionalki gutxiago aitortu diren zereginak ikusarazi dira, eta adinekoen parte-hartzea sustatu da. Emaiza ez da soilik kostuak murriztea izan: erantzunkidetasun handiagoa, auzo-kohesioa eta pertenezia-sentimendua ere indartu dira.

BESTE HERRI BATZUETAN ERREPIKA DAITEKEEN ESPERIENTZIA

“Komunitatean Hazten” proiektuak erakusten du, bereziki landa-eremuko udalerri txikietan, haurrei zuzendutako jarduketa bat tokiko garapenerako tresna integral bihurtu daitekeela. Gakoa ez da soilik jolas-elementu berriak instalatzea, baizik eta normalean bereizita lantzen diren politikak lotzea: haurtzarora, berdintasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna, biodibertsitatea, ondarea, ekonomia zirkularra eta parte-hartzea.

Eredua beste udalerri batzuetan ere aplikatu daiteke: haurrei entzunez, dauden baliabideak aprobetxatuz, espazioak eta belaunaldiak konektatuz, herri bakoitzaren natura- eta kultura-balioak txertatuz eta komunitatea eraldaketa-prozesuaren parte eginez.

Haurren espazioak hobetzea ez da soilik parke hobeak eraikitzea: herri inklusiboagoak, jasangarriagoak, kohesionatuagoak eta biziagoak eraikitzea da.